

PuLunPe

156. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



OLERKIA

Erkametz dantza taldeari

**Tximeleta koloredunen
antzera ageri ohi zarete
bailaran dantzan,**

**oin eta eskuak astinduz,
euskal kultura bultzatuz,
herri giroa alaituz.**

**Emakume talde ederra, ja-
rrai ezazue mugimenduan.**

Amair Martinezen argazkia eta testua

Mari Carmen

Mariezkurrena,

Arrarasko

banatzailea

**Egin gabe egin zen
elkarriketa**

Ur, Mari Carmen eta Argia

Irudiaren teorikoez diote, askotan, argazkirik hobere-
na ateratzen ez dena dela. Makinarik gabe edo-
ta telefonorik gabe zaudenean, irudia memorian
finkatzen denean. Klik! egite hutsarekin momentu
horren magia desagertuko balitz bezala. Elkarrikete-
kin ere halako zerbait gertatzen da, baina gutxi
batzuetan bakarrik. Hala gertatu zitzaidan Mari Car-
menekin.

Arraratsen ari nintzen bizilagun berriek eraiki du-
ten “Yurta” delakoa ezagutzen eta, bat-batean, hara
non eraikin horretara Mari Carmen sartzen den Pu-
lunpe eskuetan. Emeki-emeki aldizkariaren inguruan
azaltzen die herrira ailegatu berriei: “Hemengo aldi-
zkaria da, gure gaiei buruz hitz egiten du, oso inte-
resgarria da eta etxean jaso nahi baduzue esazue
eta hileroko ekarriko dizuet ale bat, ah! eta dohain da,
noski”

Halako sarrera itzelarekin, txantxetan hasi nin-
tzen: “Eta gainera oso jende jatorrak idazten du ber-
tan” eta halakoekin... Azkenik aldizkaria egiten duen

bi kazetarietako bat nintzela esan eta aldizkariarekin
buruan joka hasi zitzaidan Mari Carmen. Egoera
borobiltzeko, hilabete honetan elkarriketatu behar
genuela esan zidan “banatzaileen” atalerako. “Baina
Mari Carmen, elkarriketa jada egin dugu eta”.

Oraindik ere minutu batzuk geratu ginen sola-
sean, gustura: Mariezkurrenak kontatu zigun 9 urte
daramatzala aldizkaria banatzen eta gustuko duela,
oso txukuna iruditzen zaiola, “batez ere, *Aspaldiko
kontuak* atala: Jendeak haien istorioak kontatzen
dituzten modua, bizipenak... oso baliagarria da, oso
interesgarria”. Aurreko aleko azala “ikaragarri polita”
iruditzen zaiola esan zigun. Gainera, azalean agertzen
den astakardua aspaldi artilea lantzeko erabiltzen
zela erakutsi digu.

Elkarriketa egin aurretik egin bazegoen ere, ar-
gazkia egin behar, baina ezetz eta ezetz Mari Carme-
nek, azkenean berak bidaliko zuela esan. Hemendik
agur bero bat bidaltzen diogu Arrarasko banatzaile
saltseroenari!

**PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO
ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA**

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi,
Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu,
Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzenoi, etab...
Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: **Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci.**

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

2016KO URRIAREN 3AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



ERAKUSKETA:

URRIKO AGENDA

"Maia" konposatzeak

Urria

Erakusketak

Urriak 15
Nazioarteko Landa Eremuko Emakumeen Eguna

urriak 10 - 28

Guatemalako tomateen ekolizpen proiektua. Mam emakume indigenek haien herrietan egindako nekazari proiektuaren bizipena jasotzen du. Lehenago tomateak azokan saltzen ziren, emakumeekin burutu diren ahalduntze prozesuen geroztik, tomate hobereak etxean geratzen dira.



APEZTEGIBERRIN



BASABURUA - IMOTZ KIROL BATZORDEAK HELDUENTZAKO JARDUERAK

Basaburu zainaren garrantzitsua den kirolen bat egitea eta herri txuleketen zula izaten dela. Hori dela-eta, Basaburu-Imotz Kirol batzordeak jakin nahi dugu zer kirol egin nahi duzun. Horretarako zure aukera adierazi, eta horrekin batera zure izena, telefonoa eta kirol bakoitzak egiten dutenen kopurua.

Izen-abizenak: _____ Herria: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Zurba: _____ Mantentze gimnasio: _____
Postura berrantolatzea: _____ Yoga: _____
Euskal dantzak: _____ Mendi irteerak: _____
Soga: _____ Aerotonic: _____
Pilota: _____ Herri-Kirolak: _____
Beste bat: _____

OROKIETA OSTATUKO
ORDUTEGIAK:
OSTIRALA, LARUNBATA
ETA IGANDEA

GOIZEKO BEDERATZIETA-
TIK AURRERA ITXI ARTE,

ETA JAI EGUNETAN
IREKIA ERE

Basaburu emakumeen omenez
egindako lorategi bertikalaren
aurkezpena

Urriak 15, larunbatarekin
eguerdiko 12etan
Jauntserasko polikiroledegaren
ondoa
musika - dantzariak - pintxo-pote - ...



ERRUGBI ESKOLA Latan (ostegunero)



Lehenengo hezkuntzakoentzat.

Ez zaitez begira egon...

etorri gurekin, probatu eta disfrutatu

izena eman: 680 88 43 29 (Zinea)
653 38 04 27 (Gato)

19:00 **LARRAINTZAR** 7
ZINEA "PAULINA"
Paulina bere hiritik gertu dauden lan egiteko bueltatzen den abolatu gertatu da. Giza eskubideen aldeko programa batean lan egiten du hiritik kanpoaldetik zonalde sumeritari. Bere bigarren astean "patola" baten eraso jasotzen du.

19:00 **LARRAINTZAR** 14
DOKUMENTALA Les Hirondelles-Las golondrinas
Aurkezpena. Elkarretaratzeko eta tertulia auzandariarekin, José A. Penales. Urtero, udakera heldien zinean, Nafar Pirriko emakumeek Zuberoanantz bidala hartzen zuten espazio lantegietara lan egitera joateko eta etxeko ekonomian laguntzeko. Emakume hauek bizitza egutikiko dugu. Gaur egungo landa eremuko emakumeen egoerarekin alda al du?

18:30 **AUZA** 21
ZIRKO IKUSKIZUNA "Y... Pepu"
"Pepu/Pepi/lescu ikusleak zirkuan egindako eskemak aurkitzekin dator gurea. Bere laguntzale den Dabiti ahal duen guztia egindako ageraketa amakatsua izaneko. Maltabariak, oreka, akrobaziak, pantehartzaileak eta unonoa-longo dira protagonistak."

19:00 **LARRAINTZAR** 28
KONTZERTUA MARCO BARANZANO - EDUARDO BARANZANO
"Marokara autodidaktak gitarra kitzaren (bateronako) Uroan sartu arte, non zorigorriak bukatzen dituen. Eduardo Nafarroa-Goi Nafarroa Kontzertabarietako itakalea da eta hainbat proiektu garrantzitsuetan parte hartzen du... Proposatu duen emakume bakoitzak bere berezko dabil. Musika folklorikoa, Mankoa, berezko konposizioak, trinkipitak... Baina batez ere, berezko kontzertu konposizioak proposatzen dituzte. Soinu historikoa."

HARTU!



Nafarroa OINEZ'16

URRIAREN 12RA HARTE DEITU

948 30 51 34 EUSKARA ZERBITZUA

"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzazuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak..."

ZATOK DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitez!

Email bidez informazioa jasotzeko: kulturamugi@gmail.com"

Betiko ogia Olaguera bueltatu da

Etsain familiakoek etxea eta okindegia zaharberritu dute modu ikusgarrian.

Urtebete luze eman dute Etsain-Ilarregi familiakoek negozioari buelta ematen. Duela 130 urte baino gehiago ofizioan hasi baziren ere, oraindik mantentzen dute ogia egiteko "betiko" modua. N-121 errepidetik gora eta beheara ibiltzen da egunero Juan Martin Etsain bere kamioian, Lantz, Anue eta Odietako herrietan ogia banatuz. Gizartearen aldaketan testigu dira okinak, eta haien labeko atea "ireki" digute.



Atea ireki, bai; baina, lasai irakurle maitea, barrura legamiaz altxaturiko irinezko oreka besterik ez da sartzen. Labea aipatu dugu, hori baita okindegiaren bihotza eta egindako erreformaren arrazoia. Bertan egosten dira 200 gradu ingurutan ogi, pastel, madalena eta halakoak, eta lehen zuten labe zaharrean arazoak zituztelako lanak egiten hasi behar izan zuten. "Gure etxea mendi malda baten azpian eraikia dago eta sumatzen hasi ginen egurrezko labe zaharrak zenbait arazo zituela", esaten digu Juan Martin Etsainek, bera baita negozioa aurrera eramaten duena eta gure bisitaren gidari; hori bai, Milagros amaren baimenarekin.

Juan Martinek irribarre batekin onartzen du "nahi duenean hona etortzen dela", jendearekin egotera eta ogia saltzera. Bizitza guztia eman dute bertan eta zaila da hori aldatzea. Saiatu gara argazkia edo deklarazio batzuk Milagrosi ateratzen baina ezinezkoa izan da; goraintziak berari hemendik.



Egurrezko labe berria

Labea gorputz bateko bihotza izango balitz bezala, arazoak badaude, ebakuntza egin behar eta familiakoek obra handia egitea erabaki zuten, eraikina osorik aldatzea eta okindegia goitik beheara erreformatzea ere. Emaizta, argazkietan ikusten den bezala, ikusgarria da. "Iazko uztailaren 18an utzi nion ogia saltzeari eta aurtengo uztailaren 19an hasi naiz gure ogia saltzen berriz". Urte bete pasa da, nahiz eta ogia saltzen jarraitu, "baina lruñean erosten nuen, ez zen etxekoa".

Lanak, egia esan, lehenago hasi ziren, mendi maldako zenbait konturekin. Obrak *Perotxe-nak* egin dituzte, alboko etxeko bizilagunek. Pozgarria iruditu zaigu batzuetan "herri txiki infernu handi" hauetan, oraindik ere albokoekin lan egiten duen jendea ezagutzea.

Etxeko beheko plantan egon gara, okindegia eta denda dauden horretan. Labe berriari buruz harro hitz egiten digu Juan Martinek: "Egurrezko labea izaten jarraitzen du eta horrek ematen dio berezitasuna ogiari hein handi batean. Ez da gauza bera gasolioko bat izatea.

Labe hori hainbat gradutan jartzen duzu eta horrela mantentzen da beti. Egurrezkoarekin, berriz, puntua harrapatu behar diozu, adi-adi ibili behar zara, denboran edo tenperatura zer edo zer pasatzen bazara, ogia aise erre dezakezu edota txuri-txuri aterala!



Denborak aldatuz doaz, badakigu eta okindegiek ere moldatuz doaz. "Lehen", gogoratzen du Juan Martinek, "bizpahiru pertsona zeuden lanean, aitonaren garaian, orain prestatua dugu nik bakarrik egin ahal izateko dena". Sekretua, lehenengo errezeteta eta moduak mantendu gaur egungo teknologiaz baliatuta, berritzea baina oinarria mantenduta. "Labean, lehen, banan-banan sartu behar genituen ogiak, orain hamarnaka sartu ahal ditut esfortzurik gabe".

Ogia, gizartearen aldaketaren testigu

Demagun pertsona bat denda batean sartzen dela. Egunkaria hartu eta ogiaren apalategira begira hasten da: "Uuumm, emadazu... artesia bat, edo itxoin, txapata erdi hori edota hobe zerealak daraman horietako bat".

Ogiaren mundua gizartearekin batera aldatuz doa. Eskaintza ikaragarri ugaritu da azkeneko hamarkadetan. Herri edo hiri txikiak dendetan ogi bakarria saltzen zen, edota gehienez jota bi mota, orain dozena bat inguru. Baina horrek ez du esan nahi jendea ogi gehiago erosten duenik, ez pentsa: "Orain jende askok hartzen du ogia lanetik ateratzean edozein tokitan, edota Anuen jende asko lruñean dago aste egunetan eta aste-buruetan besterik ez du ogia erosten.

Lan eta bizimoduak aldatuz doazen heinean oki-

nek ere eboluzionatu dute: "Lehen ogi bakarra egiten nuen nik, baina hasi gara beste ogi mota batzuk eta pastelak eta halakoak egiten, jendeak eskatzen baititu".

Nerabe zenetik darama Juan Martinek okindegian, aita jubilatu eta negozioa berak hartu zuenetik. Administrazio ikasketak ezin bukatu eta lanean hasi zen. Zenbakiarekin kudeaketa egiteko garaian batzuetan penatua sentitzen da ikasketak ez egiteagatik; baina, tira, horretarako daude gestoriak.



Esku hauetan hasten da guztia

Ogi goxo egin berri bat eskuan dugula agur esaten diogu elkar eta hurrengo egunetan ogia zein goxo mantentzen den ikusita, hala uste dut mantenduko dela ogiaren bizimodua; benetakoa baldin bada mantenduko da, oinarritzkoa delako.

Ultzama eta Anueko hiru irakasle, 36an errepresaliatutako irakasle omenduen artean



Hunkigarria, latza, gogorra eta denetarik”, hala esan digu Ultzamako Udaleko ordezkari batek sentitu zuenari buruz. Irailaren 10ean Nafarroako Gobernuak ekitaldi bat antolatu zuen 1936an errepresaliatutako irakasleen omenez. Guztira, 300 baino gehiago izan ziren fusilatu, espetxeratu, isundu, umiliatu, eta ihesarazi zituztenak. “Oso ekitaldi interesgarria”, izan zela esan digute, “hildako eta errepresaliatu haien familia artekoak egon ziren, bertakoak eta atzerrikoak”.

Gure eskualdean, Anuen irakasle ibili zen Marciano Diez Santacreu eta Eltzaburun, Hermenegildo Alejaldre Tejero izan ziren errepresaliatuak. Bildutako ehunka pertsonen aurrean, senideek azaldu zuten haien mina zenbatekoa izan den, “orain arten zama hori gordeta izan dute, ez zirelako ausartzen gaia ateratzera, izugarria izan dela. Bihotzez eskertu zuten egin zen ekimen txiki hori”.

Gobernuko presidenteak deklaratu zuen ekimen hauek “berandu, oso berandu” ailegatzen direla, oraindik ez direla denak bat etortzen haiekin, baina gero eta adostasun social eta politikoa dutela.

Eta gaineratu zuen ekitaldi hauek premiazkoak eta ezinbestekoak direla, baina orain arte Gobernuak ez diola gaiari heldu behar den irmotasunez. Iruñako lehenengo eskola publikoa izandakoan, alde zaharreko San Jose plazan, plaka bat jarri zuten persona guzti horien omenez.

“Historia egitean gauza guzti-guztiak jasotzea” oso zaila dela komentatu digute Ultzaman, eta datu gehiago ez baditugu ere, komentatu digute Auzako alaba bat irakaslea zela eta gerran gurasoen ideologia abertzalea zela eta ez ziotela bere ofizioa egiten utzi eta azkenean Gipuzkoa aldera alde egin behar izan zuela. Ba al dakizu zerbait horri buruz?

Adinduendako osasun ikastaroak



Apeztegiberri tabernan aurkitu genituen ikastaroaren atsedendian, gehienak kafetxoa, infusioa edota mokadutxo bat hartzen. Txantxetan esaten genion ea ikastarotik atera bezain laster patxaranak eta txistorrak jatera atera ziren... Argazkian ikusten dugun koadrila eder hau Basaburuan antolatu zen osasun ikastarora hurbildutakoak dira, baina Ultzaman ere antolatzen dituzte halakoak. Osasun Etxekoek noizbehinka egiten dituzte. Gaiak? Erorketak, elikadura, iktusak, bihotz arazoak... Itziar Berasain erizainak komentatu zigun

Ultzaman ikastaro luzeagoak antolatzen dituztela, txizari ezin euste, idorrieria eta dementzia arazoekin nola bizi azaltzen dute. Horretaz gain, “nahaste sindromeari” buruz hitz egiten dute; pertsona zaharrek ospitaletan burunahasmendu handiaren aurrean zer egin...

Ikastaro interesgarria irudituzitzaigun, adinduendako eta, zergatik ez, guztiondako. Bukatzeko, aholku honekin izpirituz gazte diren lagun talde hau agurtuko dugu.

Etxean eroriz gero egin beharrekoa
 -Bakarrik bazaude, lasaitasuna mantendu.
 -Saia zaitez buruz behera jartzen.
 -Belauniko jar zaitez eskuak lurrean dituzula eta lau hanketan helduleku seguru baterantz abiatu.
 -Helduleku honi eutsiz, oin bat lurrean jar ezazu eta bulkatu gorputza jaikitzeko.

Udako besteak amaitzear

Urrian sarturik gaude eta herri gehienetan pasa dira jada bestak. Hala ere badira oraindik ere egin gabe dituzten herriak eta urrian izanen dituztenak. Azkenak Beramendikoak izan dira, urriaren lehen asteburuan egin dituztenak.



Irailean herri askotan egin dituzte bestak. Nabaritzen da abuztua pasata dagoela eta kantitatea ez da horren handia, baina besteak beste, Lantz, Aritzu, Etulain, Iraizotz, Igoa, Ihaben eta Itsason izan dira.

Era guztietako ekitaldiak izan dituzte, eta urteroko tradizioari jarraitzen diote (Iraizozko maiatza jartzea, goizetako gosaria, Itsasoko erronda eta abar), baina tradizioa hautsiz berritasunekin datozenak ere badira. Lantzen, esaterako, karpajarri dute lehen aldiz ostatuaren parean, eta Luis Mariñelarenak esan digunez oso egokia izan da. Bertan aritu ziren bazkaltzen, zunba dantzatzen edo Gaskueko abeslaria duen “Los Tajudos del Norte” musika taldea entzuten.

Mozorroto ere egin ziren herri batzuetan. Etulainen herri guztia zegoen moztorroarekin jantzita, eta Lantzen txikitxoak izan ziren bakarrak. Urriko festen azken bultzada emateko irratian informatuko dugu non diren bestak.

Bost ikastaro antolatu ditu Garapen Agentziak

Nafarroako lan zerbitzuarekin adostuta, Iruñean izan beharrean, Nafarroako mendialdean antolatuko dituzte industria zein negozio txikiekin harremana duten bost ikastaro. Zehazki Leizta eta Lekunberrin egingen dituzte, Ultzama aldeko langile zein langabetuak ere gerturatzeko asmoz.



Mendialdea Mankomunitateko Garapen Agentziak, Plazaola Partzuergoa eta Cederna Garalurrek antolatu dituzte. Deialdia lanean ari diren edo langabezian dauden pertsonendako da, mendialdekoendako batez ere.

Prestakuntza teknikoa jasotzeaz gain, langabeen eta enpresen arteko sarea eratzea da beste helburu bat, bertako enpresek bertako langabetuak har ditzaten. Hona hemen bost ikastaroak:

NEGOZIO KUDEAKETA: Urriaren 17tik azaroaren 14ra, astelehenero 9:30-13:30. Leitzako udaletxean.
ZERBITZUEN ESKAINTZA SORTZEA: Urriaren 18tik azaroaren 8ra, asteartero (Azaroaren 1a izan ezik) 9:30-13:30. Leitzako udaletxean.
OINARRIZKO OFIMATIKA: Urriaren 18tik azaroaren 8ra, asteartero (Azaroaren 1a izan ezik). 15:30-17:30. Leitzako institutuan. (6 ordu presentzial eta beste 14ak internet bidez).
MARKETING ONLINE: Urriaren 19tik azaroaren 9ra, asteazkenero 9:30-13:30. Lekunberriko Plazaola Partzuergoaren egoitzan.
OINARRIZKO KALITATEA: Urriaren 20tik azaroaren 3ra, ostegunero 15:30-17:30. Leitzako institutuan (6 ordu presentzial eta gainontzeko 14ak internet bidez).

Izen ematea urriaren 11ra arte dago irekita 848425834 edo 948507205 telefonoetara deituz.

GOIZERO-GOIZERO. ENTZUN ESAN ERRAN IRRATIAN
"EGÜNERO" IRRATSAIOA.
GOGORATU. 107.9 FM

Maddi Braco Espainiako errugbi selekzioan

La Unika Errugbi Taldeko jokalaria ultzamarrek haien maila erakusten jarraitzen dute. Duela hilabete batzuk La Unikako emakume taldean aritzen diren eskualdeko jokalariekin erreportaje bat egin genuen,eta errugbiarekiko dagoen afizioa agerian utzi genuen.



Oraingoan, haie-tako batek, Maddi Braco lizasoarrak, Espainiako federazioaren deia jaso zuen, Europako 18 urtez azpiko txapelketara joateko. Eta hala gertatu zen, lehen aldia zen Espainiako selekzioan jokatzeko zuela, eta Europako jokalaria onenen aurka lehiatu zen Vichyn (Frantzia) jokatuak Europako txapelketan. “Ez nuen espero selekziora joatea, etxera deitu zuten ni lanean nengoen bitartean, eta amak esan zidan oso pozik jarri nintzen”, hala esan zigun Maddik irratian egin-dako elkarrizketan. Azkenean, Frantziaren ondoren, Europako bigarren izatea lortu zuen Espainiako selekzioak.

Andorra, Gales, Suedia, Irlanda, Frantzia eta Kanada izan



Absolbizio eguna 2016

Azkeneko hogeita bi urte honetan egin den erara, aurten ere irailaren lauan Larraungo Artziprestazgoko parrokiek ospatu dute Absolbizio Eguna. Parte hartu dute Araitz-Betelu-Lekunberri-Larraun-Basaburua eta Imozko parrokiek.



Egun horretan egin genuena. Guardetxea zenetik ha-maikak laurden gutxiagotan oinez prozesioan atera ginen parrokiak prozesio gurutzeak aurrean genituela. Santutegirako bidean kalbarioak egin genituen, geldialdi bakoitzean erretratuz eta abestuz. **Penitentzia prestaera eta aitortzak** Errukiaren Urte Santua ospatzen ari garela gogoratuz, gure kontzientziak aztertzeko denendako prestaera berezia egin ondoren, banakako konfesioak egin genituen. Konfesatzeko lau apez jarri ziren. **Eukaristia eta diru-eskea** Konfesioak bukatuta, parrokiak gurutzeak aurretik zirelarik prozesioan aterata, Eukaristia kan-



poan ospatu genuen. Meza emaile buru Santutegiko arduraduna, parrokiak apezak eta elizbarrutiko diakonoak lagun zituela. **Parte hartu zuten parrokiek** Hogeita hamar parrokiak gurutzeak bildu ziren, Uhartekoa ere aldare aurrean jarri zuten. Basaburuko parrokiatik zortzi gurutze eraman zituzten eta Imozkoetatik hiru. Eukaristiaren bukaeran Mikel Goiaingeruaren irudiari musu emanez eta gurutzeak elkarri, “Mikel, Mikel, Mikel gurea, gorde, gorde Euskal herria” abestuz gure etxeetara itzuli ginen.

Zergatik ez?

Uda honetan, Jauntsaratsen, Zergatik ez? ikastaroa egin zuten, Udaren Euskara batzordeak antolatuta. Euskaltzaleen Topaguneko Oskar Zapatak eman zuen ikastaroa. eta Basaburuko 13 gaztek parte hartu zuten. Adin tarte zabala samarra osatzen zuten, 14 urtetatik 27ra bitarteko gazteak baitziren. Ikastaroan parte hartu zuen Nora Ramonedak esan digunez, “ikastaroaren alderdi positiboena izan zen Basaburuko gazteen artean euskararen erabileraren inguruko kezka egon badagoela ikustea.”

Noraren hitzei jarraituz, “ikastaroan, kontzientzia pizteko eta euskararen aldeko jarrera erakusteko lehen urratsak zein diren ikusi ahal izan genuen eta denok ados agertu ginen aurrerago tailer espezifikoagoak egiteko ideiarekin ere.” Ramonedak adierazi duenez, “Zapata oso pozik zegoen elkartutako jende kopururekin; hemendik aurrera eginen diren tailerretara agertzeko gonbita luzatu nahi diet Basaburuko gazte guztiei: zenbat eta jende gehiago, hobe!”

Gurdibideak Latasan izan zuen geldialdia



Axuria, arrautza erreak, sagardoa, musika, kantuak, argazkiak... Hori dena elkartu zen Burgostik zetozen idiek tiratutako gurdiei ongi etorria egiteko.

Egurrezko lau gurdi, idi pare banak tiratuta, eta haiekin batera 50 pertsona inguru ibilbidea oinez egiten, Burgostik Pasaia. Antzina bezala, itsasontzietarako alkaterna edo alkitrana eramateko egin zuten bide hori, eta bidearen geldialdietako bat Latasa zen.

Irurtzunen egin zuen gaua taldeak, eta, hurrengo egunean, Irurtzundik atera eta ordubetera iritsi ziren Latasara, bertan indarrak hartu eta Lekunberrira bidean jarraitu zuten.

Donostia 2016 kultur hiriburuak antolatu zuen ibilbidea, Pasaian berreraikitzen ari diren Bou Pasaia itsasontziaren harira. Era tradizionalen ari dira osorik eraikitzen, eta alkitrana ere, bere garaian bezala, idiek tiratutako gurdietan eraman zuten Burgostik Pasaia.

Etxebizitza soziala Ultzaman

Ultzamako Udalak, udaletxean daukan etxebizitza alokatzeko oinarriak argitaratu ditu. Azkenaldi honetan ultzamarren etxebizitza beharren inguruan lanketa egin ostean, praktikan, etxebizitza alokatzeko eskaera zenbatek egiten duten jakin nahi du Udalak, etxebizitzari irtenbide soziala emateaz gain.



Udaletxeko atzeko aldean bigarren solairuan dago etxebizitza. Alokatzeko baldintza batzuk ere plazaratu ditu udalak: 18 urtez gorakoa izan beharra dago, Ultzamako biztan-

lea izatea, ez izatea beste etxebizitzarik bere izenean, Udalarekin zorrik ez izatea eta soldata minimo bat izatea.

Alokairuaren prezioa soldataren arabera izanen da. Soldata


txikienetik handienara, 120, 150, 180 edo 300 euro ordaindu beharko ditu alokatzaileak hilero.

Ultzamako udaletxean informazio gehiago eta izena emateko orria aurkituko duzue.



Basaburuko eta Imozko jendearendako autobus garraioa

Lehenengo aldiz bi bailara hauetako ikasleek eta besteek zerbitzua izanen dute



Basaburuko udaletik konfirmatu digute martxan dela Iruñera joan eta etorriko zerbitzua “iaz sortutakoari jarraipena emanez”. Garraio zerbitzu hau denbora luzez borrokatutako aldarrikapena da, “gaurko gazteak dira biharko herriak bizirik mantenduko dituztenak eta zentzu horretan bailaran geratzea nahi badugu bertan ikastea erraztu behar zaiela” uste dute udaletik.

Azpimarratu digute, aurtan lehen aldiz, Imozko Udalarekin hitzarmena sinatuko dela zerbitzua Imozko gazteek

ere erabili ahal izateko: “Osotara 12 gazte dira zerbitzu honen erabiltzaileak; 8 Basaburukoak eta 4 Imozkoak”. Bi udalen arteko akordioa da EDSA enpresari ematea zerbitzuaren kudeaketa eta sortzen den defizita bi udalen artean finantzatzea.

Bost leku garraio arrunterako

Nafarroako mendialdeko bailara txikietan ez du inolako zentzurik garraio sistema desberdinak izatea, baina orain arte ez da posible izan, burokrazia kontuak direla eta, zerbitzu bateratua izatea. Azkenik Nafarroako Garraio Atalak baimena eman badu ere, ikasturtero berritu beharko da. Baimen horretan aukera eman da ikasleak ez direnenek leku izatea ere. Kopurua bost lekukoa da. Udaletik komentatu digute “heldu den hilabetean baimena eskuratzea espero dugu, eta hortik aurrera alde zurreretik udaletan izena eman beharko da zerbitzu hau erabili ahal izateko”. Aipatu digute bandoaren bidez emanen dela honen berri.

Herri kiroletan indartsu berriz ere



Euskal Herriko arpana txapelketan eta Nafarroako aizkora txapelketan ordezkariak izan ditugu irailaren amaieran jokaturako ekitaldietan. Larabetzun eta Uharte-Iruñean izan ziren txapelketak, eta txapela bat ekarri dute gurer.

Euskal Herriko arpana txapelketa mistoan Atezko Mikel Eugi izan zen txapeldun Itxaso Onsalo aresoar-

rekin. Ana Iraizoz eta Josetxo Barberena ultzamarrak hirugarren izan ziren 20 segundora. Euskal Herriko arpana txapelketa femeninoan, berriz, Eltsoko Iraizoz ahizpak bigarren izan ziren. Ana eta Ainhoa txapeldunetatik 20 segundora geratu ziren hemen ere, eta Itxaso Onsalo aresoarrak eraman zuen txapela Leire Astiazaran gipuzkoararekin batera.

Lehen mailako Nafarroako aizkora txapelketan Julen Kañamares aroztegiarra eta Aitor Senosiain olaguearra izan ziren. Julen seigarren sailkatu zen, eta Aitor Senosiain zortzigarren. Lehenengo mailan mantenduko dira biak. Txapeldun Iker Vicente otsagiar gaztea izan zen.

Iritzia	Balaluma
Beharbada horrela itzul genezake Kolonbiako gobernuaren eta FARCen artean hitzartu den bake ituna sinatzeko erabili den idazkailuaren gaztelaniazko izena, balígrafo delakoa. Ikusiko zenuten benetako muni-zioarekin (metrailadore eta fusiletako bala batekin) egindako bolaluma. Joan Brossari bururatu-tako olerki gauzazko bat ematen du. Edo Arteen eta Armen arteko eztabaida antigoalekoari buruzko testu bilduma baten portadako ilustrazio sintetikiko eta asmotsua. Edo besterik gabe txantxazko idazluma, oporren ostean ikaskideak harri eta zuruzteko eskolara eramateko modukoa. Ezin uka objektu gisa balaluma aski kitsch dela.	Zalantzarik gabe, oroigarri moduan saltzen hasiko dira eta Kolonbiako etxe askotara iritsiko da bakearen metafora birkar-gagarria. Seguruenik ez dago beste modurik. Bake prozesu guztiak berez pixka bat kitsch dira edo —Pessoak esanen luke— irrigarriak. Gertutik ikusi dugu. Gertutik bezain llaburki. An-

Korrika, **asfaltotik** mendira

Trail running edo mendi lasterketak modan daudela ematen du. Korrika egite soila geroz eta jende gehiagok egiten du, eta hortik beste diziplina honetara pasatzen dira asko, mendira. Alderantziz egiten dutenak ere badira, mendian ibiltzetik mendian korrika egitera pasatzen direnak. Aldaketa alde batera zein bestera, “engantxatzen” duen kirola dela argi dago, geroz eta jende gehiago eta geroz eta kilometro gehiago; 10-15 egitetik 170 egitera!

Ultzama aldea inguru ezin hobia da mendian korrika egiteko, eta kirol hau egiten duten korrikalari ugari ditugu. Aritzuko Aitor Iraizotz eta Auzako Asier Uriartek antolatutako Nafarroa

Xtrem 67km-ko lasterketa gure ingurutik pasa zen, Saioa mendia igoz, Lantz aldera jaitsiz eta Aritzutik igaroz, eta Anue, Odieta eta Ultzamako korrikalariak izan ziren bertan.

ASIER URIARTE (AUZA)

KIROL TEKNIKARIA ETA NAFARROA XTREMEKO ANTOLATZAILEA



“Nafarroa Xtrem lasterketaz balorazio positiboa egin dut. Lehenengo aldia zen, eta gu berriak halako lasterketak antolatzen, baina jendea gustura aritu zen.”

“Eguraldia ez genuen lagun izan, eta lasterketa asko gogortu zen. Hala ere korrikalarien %30 baino ez zen erretiratu, oso gutxi da hori.”

“Eskerrak eman behar dizkiogu Lantz, Aritzu eta inguruko jendeari boluntario moduan egin zuten lanagatik. Lantzko festak eta Burdindogiko erromeria izanda ere laguntza ederra eman zuten”

AITOR IRAIZOTZ (ARITZU).

ULTRA TRAIL KORRIKALARIA ETA NAFARROA XTREMEKO ANTOLATZAILEA



“170km-ko lasterketa izan da egin dudan luzeena, Mont Blanc-eko ultra-trail lasterketa (13. postuan sailkatu zen Aitor 2014an), 23 orduz egon ginen korrika. Denetarik pentsatzeko denbora ematen dizu, batzuetan kontzentratuta eta bestetan edozertan pentsatzen. Halako lasterketetan hankak prest egon behar dira, baina buruak ezberdintasuna markatzen du, garrantzitsua da.”

“Duela 6-7 urte hasi nintzen korrika, lehenago bizikletan ibiltzen nintzen. Geroz eta km gehiago sartzen joan nintzen, nire ezaugarriengatik hobe egiten ditut lasterketa luzeak, baina motzak ere gustatzen zaizkit.”

IÑAKI MARIÑELARENA (ARITZU). KORRIKALARIA

“Orain arte egin dudan luzeena izan da Nafarroa Xtrem, eta gogorrena baita ere (67km-koa egin zuen). Aritzura iritsi eta herriko jende guztia animatzen egotea beti polita da, eta asko animatzen du.”

Aurten hasi naiz halako lasterketak egiten, hau izan da nire bigarren mendi lasterketa. Motibatu ninduen mendi lasterketak egitera Nafarroa Xtrem izan zen.”

“Pribilegiatuak gara daukagun mendiez disfrutatu dezakegulakoz, horregatik nahiago dut mendian ibiltzea. Txikitatik hori bizi dugu eta hala izaten jarraitzea espero dut. Anuen mendi asko dauzkagu korrikan aritzeko.

Lasterketako mendi askotan entrenatzen egon naiz: Saioa, Xuriain, Arzeki, Goitean... eta beste askotan ere ibili naiz lasterketa prestatzen.”

SAIOA MUÑOZ (ZIAURRITZ) ETA LETIZIA ALTUNA (ERRIPA). KORRIKALARIAK



“Bizi garen tokian zaila da mendiari ez begiratzea. Letizia ni baino lehenago hasi zen Behobia egiten bere aitari jarraituz, baina duela hiru urte hasi ginen elkartzen elkarrekin entrenatzeko. Hasieran San Urbanoko itzulia, gero pixka bat gehiago... eta azkenean txikia geratzen zaigu askotan eskualdea. Mendiak badu pozoi berezi bat.”



“Umeak oporretan daudenean batzuetan gaez frontalarekin joaten gara, edota goizeko zazpitan. Ibilbide luzeak normalean astebururako uzten ditugu. Ondo datorkio nire burutxoari ordu pare bat mendian egotea, deskonektatzeko eta eguneroko adrenalina botatzeko. Amatasuna errezagoa da kirola eginez.”

“Normalean eskualdean egiten dugu korrika. Odieta batez ere. Noizean behin Atez eta Ultzama ere bai. Asko gustatzen zaigun toki bat adibidez, Gorrnzko gaina da. Aukera dezente ditu. Eta noizean behin kotea hartu eta beste mendi lagunekin Nafarroa eza gutzen dugu. Korrika egiteko aitzakiarekin toki izugarri politak ikusi ditugu.”

IMANOL GASKUE (AUZA). KORRIKALARIA



“Joan den urtean lehengusuak, Mikel Berasain, piketzen hasi ziten ta Eugiko pantanoai buelta krosa izan zen lehenengo laisterketa. Ta gero Behobia-Donosti ta Orreaga-Zubiri egiten akitu nun. Gustatu zitzaidan ta aurten ere bizpahiru karrera inen ditut.”

“Ultzaman leku pollit asko daude ibiltzeko. Udaletxeko web orrialdean badire ibilbide asko iteko, motzak zein luzeak. Ultzama aldean, Auza, Larrainzar, Lizaso, Eltzaburu, Suarbe aldetik ibiltzen naiz normalean.”

“Nafarroa Xtrem inen dut hurrengo urtean. Karrera hasi aurretik hitz egiten genun ea hurrengo urtean luzea inen giñun baña 30. km-an nindoala argi geratu zitzaidan oraingoz “laburrakin” aski zaitela.”

MIKEL BERASAIN (AUZA). KORRIKALARIA



“Duela 3-4 urte hasi nintzen korrikan, eta mendiko lasterketak egiten pare bat daramat. Kirola egitea beti gustukoa izan dut, eta futbola utzi eta gero zerbait egiteko, ba, korrika eta triatloiak egiten hasi nintzen.”


“Lehendabiziko probak asfaltoan egin nituen, baina, behin mendiko lasterketa bat egin ondoren, askoz dibertigarriagoa iruditut zitzaidan menditik korrikan ibiltzea.”

“Aurten bi lasterketa egin ditut 32km-rekin, Kamille Xtrem Izaban eta Nafarroa Xtreme, eta distantzia hori da nire topea. Ez daukat km gehiagoko probak egiteko gogorik. Nahikoa ikusten dut 3-4 ordu korrikan ibiltzea.”



Basaburuko Txaranga

Axpaldixko kontua da. Bai, urteak joan egin dira. 1979. urtea izanen zen, Etxalekuko tabernan jolasean, eta norbaitek hala esan zigun: “Bakizte Yabengo Kastillak-eta txaranga bat in’biautela? Joan den launbetian hor ben yittun Urritzeko biltokin, gaueko 12tan, furgoneta instrumentus lepazurriaño kargatuik.-Zeeel!” Harrigarria egin zitzaigun denoi kontu hura. Erotuak ote zebiltzan edo pentsatu genuen. Musika zipitzik jakin ez eta txaranga sortu behar zutela? Instrumentuak erosten halako dirutza bota!? Motel, motel! Jarri zuten jolasa, bai, baina baita gauzak martxan jarri ere. Sortu zuten txaranga eta arrakasta gaitza izan zuen. Eta urte askoren buruan bukatu ere bukatu zen.



TXARANGA SORTU

Jesus Mari, txaranga nondik nora? Ideia hori nola sortu zen?

Beramendiko pestetan. Leitzatik etorri zen txaranga ttiki bat, lau edo bost lagunekoa. Izenik ere ez zuten. Eta ordun Beramendiko biltokian haiekin jolasean, eta ea guk zergatik ez genuen Basabururako txaranga sortzen. Horrela berotu, ondorengo egunetan zer-bait gehiago landu eta...

Eta zuek, ausardi puska bat bota, eta instrumentuak erosi.

Bai, ez dakit azaroko San Martin egunean zen edo, nolanahi gisa, Aldazko pestak ziren. Altsasura joan bi furgonetetan eta han erosi genituen instrumentu sail bat, asko, batzuk berriak, besteak usatuak, baina dirua ahal bezain gutxi gastatuz. Pentsatu genuen: jotzen ikasten badugu hobeak erosiko ditugu.

Merkesur ibilita ere, jende gaztea eta, ez zen diru soberanterik izanen zuen artean.

Moldatu ginen. Ni badaezpada, prestaturik joan nin-

tzen. Banekien batzuek xuhur zebiltzala eta ni prestaturik joan nintzen, diru puska hartuta.

Zenbat zineten instrumentuak erosteko eta martxan jartzeko momentuan?

Sei edo zazpi lagun, ez gehiago. Itsasokoak eta Beramendikoak.

Eta norbait beharko zenuten ba erakusteko?

-Bai, nire koinatuak, Joakin Zubirik, ezagutzen zuen musika erakustun bat, Vicente Girones, militarra. Honen bazuen eskola bat Burlatan eta beste bat Garesen. Eta harengana joan ginen, koinatua eta biok. Eta etorriko zela, prest gizona.

Hasieran zazpi-zortzi lagun, baina laster jende gehiago apuntatu zen, ezta?

Ba, bai, Erbiti, Igoa, Arrarats, Etxaleku... Jende asko, eta irakasle gehiago behar. Gauzak ongi eta behar bezala egiteko irakasle gehiago behar genituela, eta beste bi irakasle opatu zizkigun Gironesek, bat Atarrabiakoa (Villava) eta bestea Erriberakoa. Eta esan behar dizut, *Basoko* jarri genion txarangari izena botazio bidez, hori bereizi genuen.

Eta ikaslekua non izan zenuten?

Itsasoko biltokia. Itsasoarrek ere franko egiten zuten biltokia uztearekin. Ez pentsa, toki hobe baten bila ere ibili ginen, baina ezezkua hartu genuen. Tokiz juxtu samar ibiltzen ginen.

Irakasleak, horien joan-etorriak, instrumentuak... diru asko behar.

Bai, hilero hilero kuotak kobratzen genituen. Nik biltzen nituen eta irakasleak pagatu ere bai.

Hau dena diru-laguntzarik gabe.

Bai, bi urtez edo batere diru-laguntzarik gabe. Gero Etxalekuko Martin Azpiroz eta ni ibili ginen Diputazioan bueltaka eta erdietsi genuen diru-laguntza. Askok lagundu zigun Javier Azpiroz, Etxalekuko motoristak (Polizia Forala) Diputazioan aritzen baitzen lanean...asko lagundu zigun.

Jesus Mari hor dugu, ibilera franko egiteaz gain, kuotak kobratu, irakasleak topatu, ikasleen zerrenda eman...Bai, horrelakoetan, beti behar izaten da lan horiek egiteko gizon edo emakume presturen bat. Zein



ARBIZUKO FETETAN. Goitikoan artean, hemengoak direnak: (-) (-) (-) Irena Latasa eta Cristina Jimenez Alsua (-). Kakulliko daudenak: Jose Antonio Ansorena (-) Jesus Mari Garcia eta Jesus Maria Iruretagoyena Hernandorena.

Kastilla baino prestuagoa gauza horietarako? Honi tokatu zitzaion administrazioa, erlazio publikoak... denetatik egin omen zuen.

Saxofoia ikasten ere ibili nintzen, baina ez nuen asko aurreratu. Nik bonboa eta txindatak.

HERRIZ HERRI MUSIKAREKIN JAI GIROA JARTZEN.

Basoko txarangaren motorretako bat izan zen Jesus Mari. Motorra eta erregaia ere bai. Eta herriz herri toki guztietara joaten zena ere bai.

Zergatik hasi zineten herriz herri musika jotzen?

Basaburua eta Imotzen ibiltzea genuen pentsatua. Baina, jende gazteari diru zerbaite ematen ez bazaio atzera egiten du eta dirua kobratu ahal izateko herri handiagoetara joan beharra zegoen.

Eta biltzen zineten aski jende herrietara joateko?

Bai, horrela jendea berotzen hasi zen eta herri gehiagotara joaten hasi ginen. Hala ere, askotan lana zela eta, kide guztiak ez zuten joaterik, eta Agoizko Txarangarekin elkarlanean aritu ginen. Baita Hernaniko *Incansable*ekin ere. Gu eskas baginen, haietatik tiratzen genuen eta alderantziz ere bai, haiek eskas ibiltzen zirenean, gutako batzuk joaten ginen haiena osotzera.

Zuek ibilitako herriren batzuk esan beharko

dizkidazu.

Nafarroa aldean, Agoitz, Isaba, Arbizu, Etxarri Arantz, Lakuntza, Irurtzun...Eta Nafarroatik kanpo, Laredo, Tolosa, Oñati, Huesca... Askok ibiltzen ginen. Lanean festa askotan ibili ginen.

Eta San Ferminetan ere bai.

Bai, urtero joaten ginen 6-7 lagun. *Peña Aranak* kontratatzen gintuen. 40 lagunekoa txaranga egiten zuten, hango eta hemengo musikariekin osotua.

Eta talde bezala?

Bai, hiru bat urtez joan ginen talde bezala ere, Jaurta, San Nicolas eta karrika horietan jotzeko. Hori gure borondatez. Hemengo herrietako pestetan ere ibiltzen ginen. Ez genuen deus eskatzen eta eman ere ez ziguten egiten. Hala ere gu kontent.

Gero, nekatzen edo...hasi zineten.

Bai, jendea hasten da ezkontzen, aspertzen, zahartzen.

Haserririk eta, ez zenuten deus horrelakorik izan.

Ez, ez, deus horrelakorik ez. Badakizu, gauzak akabatu egiten dira. Baina gurea armoni ederrean bukatu zen. Orain bertan ere, elkarren artean harreman onak ditugu. Ez gaude atzentzeko. Txarangaren bukaera 1991-1994 tartean izan zen.



HIZTEGIA (BERTAKO HITZAK)
Jolas egin. Hitz egin.
MERKESUR IBILI: Merkearen bila.

ERAKUSTUNA: Irakaslea
BESTE HITZ BATZUK:
ARRAKASTA: exito.
ERREGAI: combustible

*NORBAITEK BASOKO TXARANGAREN FOTOGRAFIAREN BALU, DEITU TELEFONO HONETARA: 620.621.111.

“Aitak basoan hartutako egurrarekin **artelanak** egiten ditut”

Bere inguruko askok ez bazekiten ere, Anton Iraizotz alkoztarra artista da. Duela gutxi hasi zen, baina zurezko zein burdinazko artelanak egiten ditu. Orgiren 20. urteurrenean aurkeztu ondoren, Larraintzarko bentan ditu bere lanak erakusgai.



Noiz hasi zinen artelanak egiten?

Familiak beti esaten zidan ea zergatik ez nintzen halakoak egiten hasten. Izan ere, beti egin izan dizkiet zurezko piezak, burdinazkoak ez, lan handia ematen duelako, baina hobby gisa egurrezkoak egiten nituen. Eta orain langabezian geratu naizenez denbora gehiago daukat egiteko.

Eta hemengo lanak noizkoak dira?

Duela urte bete hasi nintzen saltzeko helburuarekin egiten, eta hemengo lehen lana egin nuen. Lehen oparitzeko egiten nituen batzuk ere badaude, emaztearendako, arrearendako... egin nituenak.

Zer motatako artelanak egiten dituzu?

Bereziki margolari batean oinarritutakoak egiten ditut, Paul Klee izenekoarenak. Beti gustatu izan zait, eta bere koadroak izan ditut etxean. Berak marrazkiak egiten ditu, espresionismoan, marrazki sinpleak, baina niri oso ongi datozkidanak zurez edo burdinaz egiteko. Noizean behin Klee artistaren obrak egiten ditut, baina beste batzuetan nik sortutakoak dira. Bat, esaterako, nire emaztearen irudi bat da, berari oparitu niona, beste bat txori batena...

Sakonera ere ematen diezu bere marrazkiei?

Bai, materiala landuz eta kapak eginez sakonera ematen diet. Horrekin nire ukitua ematen diet bere marrazkiei.

Nolatan hasi zinen?

Ni arotza nintzen. Urte askotan egin dut lan burdinarekin, eta esperientzia daukat burdina lantzen. Hala ere ez nuen sekula halakorik egin burdinarekin, baina ez dakit, erraztasuna daukat honetarako. Eta zurarekin, gehiago egin ahala ikasiz noa.

Zenbat denbora hartzen duzu artelan bat egiteko?

Ez naiz egun osoan lanean egoten, ezta lanaldi oso bat ere. Baina osotara bi hilabete inguru eman ditut

zailena egiten. Lan handia dauka. Burdinazkoak hila-bete inguruan egiten ditut.

Nola egiten dituzu?

Zurezko lanak ez dira egur berekoak. Egur ezberdineko zatiak hartu eta puzzle bat egiten dut, pieza guztiak elkartuta. Eta burdinarekin gauza bera egiten dut, piezak moztu eta elkartu.

Ze material erabiltzen duzu?

Haritza erabiltzen dut. Gure aitak basoan egiten zuen lan, eta noizean behin egurra hartu eta sabaian gordetzen zuen altzariak egiteko. Eta nik egur hori erabiltzen dut orain, taulak, oholtzarrak, biga zaharrak... artelanak egiteko. Material ezberdinekin jokatzeko dut sakontasuna eman eta kapa ezberdinak egiteko.

Eta zein tresna erabiltzen duzu?

Gubiak bereziki, baita motozerra ere taula handiak mozteko, erradialak, lixagailuak... Eta lan gehiena eskuz egiten dut. Hau zurarekin, eta burdinarekin erradialak, marteilua eta ingudea, etxean daukadan beste tresna berezi bat, soldadura...

Hemen erakusgai dituzunak baino obra gehiago duzu?

Ez, hemen batu ditut orain arte egindako guztiak. Orain zurezko zaldi bat egiten ari naiz, Alkozko bizilagun batena. Zaldia larre batean ikusi nuen, eta indar izugarria transmititzen zidan. Argazkia atera eta horrekin ari naiz lanean. Tamaina handian egingen dut, sakontasun handiarekin, mendiak eta borda bat fondon dituela, zuhaitzak eta abar.

Orduan argazkian ateratakoa landuko duzu zurez?

Ez guztiz. Zaldiari argazkia egin nion eta gainean hainbat gauza marraztu nituen. Ez zait gustatzen guztiz erreala izatea, nire ukitua ematen diot. Indarra transmititzen zuen zaldiak, eta nik indar horri eman nahi diot garrantzia nire eskulturan.

Mariano Oiz, **muselari** fina

Mariano Oiz Loidi, Orokietako Etxeberria etxean 1942an jaioa. Atte bertakoa ta ama berriz, Udabeko borbonen etxean sortua. Garai hartako gazte askok bezala, oihanetako martxa hartu zun, udak oihanen, lantegin, ta neguk berriz, etxealden. Museako ta mahaieko jokutarako afizioa bazula aittue banun nik, Xerrarin gandik ta beste orokietar batzungandik.



Joxe Antonio, honen alabakin ta Prospero, honen lagune.

1966an, alderdi hortako gazte frankok bezala, artzain kontrataz (3 urte) , Ameriketako Oregon estatura etorri zen. Ez omen zitzion artzain bakardade hori asko gustatzen bainan bestek bezala, behin etorritz gero, egon egin behar. Urte baten burun, bere osaba bisitatzeraz (aspaldin hemen zena) joan omen zen Stockton (California) herrira ta sekula Oregon bueltatu ez. Garai hartan euskaldun asko zen bazter horietan artzain etorri ta negu aldera Stockton, Fresno, Chino ta halako herritara jeisten zenak egun batzuk pasatzea edota hilabete osoak. Saile osoak juntatzen omen zien euskaldun jatetxe ta ostatu horietan, juergan, pestan, bere hartan lo eginez. Fresno zen famatuna, 4 edo 5 euskaldun jatetxekin, ta gehien euskaldun artzain biltzen zuna.

Denbo asko baitlehen , Mariano hara bildu zitzien, nola ez, salsa guztie zen lekura, ta sekula Oregon bueltatu ez. Musean habile, banaka aritzen zena, zalaparta handirik gabe, ixile berez, denak izugarri maite zutena. Oraindik ere batek edo bestek aipatzen du bere izena, piknik horietan. 1983 urterarte musetik ta mahaieko kartetako jokutik bizitu zen. Euskaldun horiek denak, mahaiean garbitzen omen zittun, mano mano musean. Sekulako habildadea kartakin.

Askoei galdetzen nien ia nola moldatzen zen denai irabazteko, ta klase guztiko erantzunak izandu nittun. Batzuk kartak etzittula nahasten, ta berak ematerakoan, bazakila ze kartak zien mahaien. Beste batzuk, lehenbizin kontrarioai uzten

ziela irabaztea, pixkoat pikatu arte, ta gero zapla!! denak garbitu. Batek edo bestek, kontrarioak tragoz muturre berotzen zutelarik, ordun diru jokun hasi.

Nola nahi ere, ezta beste euskaldun bat inguru hotan, hura bezala hamarkada oso bat jokutik bizitu denik . Fresno Santa Fe, Iturri ta Vasco Hotelean, etxekoa bezala edukitu zuten.

Museko ta jokuko zentroak ziren horiek garai hartan. Artzaiek ta kontratak akabatu zelaik, muselarik ta jokuzalek ere bukatu zien, ta hauekin batera gure Marianon bizi modue. Ogi eiten ari-tu omen zen zerbait, ta 1983an bere anaia Joxe Antonio bixitatzeraz etorri zen San Jose. Bere anaiak animatuta, hemen gelditu zen. Lehenbizin Joxe Antoniorentzat pion bezala, ta gero pixkoat martxa hartu zuelarik, bere kontura hasi zen. Lanen ere fine, berehala etxea erosi, ta ederki moldatu zen bere ofizio berri hontan. Aldin aldin, Fresno buelta bat edo beste, ta San Francisco euskaldun lekutara ere.

1989an bihotzekoa izandu zun beno berehalaxe berriz hasi zen lanean. 1994an bigarrena izandu zun , ta ordun denak uztea erabaki zuen. Etxea saldu, baratzetako negozioa saldu ta Euskal Herrira bueltatu zen. Nik 1998an ezagutzeko plazerra izandu nuen, bere arreba Ana Marikin bixitan etorri zelarik. Horra erretrato batzuk , garai hartakoak . 2000. urtean (oker ez banago), hiru-garren bihotzekoa izandu zun ta betirako joan zitziaun. Goian bego.

Errefuxiatuen **ahotsak** gurean

Gizartearen hipokresiaren aurrean, gure eskualdeko lagun batzuk Grezia aldean egon dira bertan bizi den egoera lazgarrian laguntzeko. Udako datak lagun, orain bueltan daude eta azpimarratu nahi dute “mezua zabaltzea” ezinbestekoa dela, “bertakoa hemendik mugitu dezakegulako”.



Errefuxiatu eremu bat eta Larraintzargo hitzaldia iruditan.



AMAIUR M. ETA MIREN U.

“**Hirien kanpoaldean dauden industria poligo-
noetan, edota utzitako lur-sailetan eraiki di-
tuzte pertsona errefuxiatuendako eremuak.
Populazioaren begietatik ezkututzen dituzte,
existentuko ez balira bezala**”. Esan Erran irratria
hurbildu zen Amaiurrek hala kontatzen zigun eta
egoeraren adibide zehatza iruditu zitzaigun; gizar-
tea beste aldera begiratzen du Europa osoan, jakin
badaki bertan gertatzen dena ez duela gustuko,
baina badakizu nola esaten duen gaztelerazko
esaera horrek ikusten ez duten begiei buruz.

Azken hilabeteetan asko izan dira Grezia edota
Sizilia aldera hurbildu diren pertsona boluntarioak.
Horien artean, Nafarroako suhiltzaile batzuk. Ha-
sierako bidaiei ondoren sortu zen HelpNa elkar-
tea. Orduetik hona, Nafarroako jende dezente joan
da haiekin Idomeniko edota beste zonaldeetako ere-
muetara. Gure eskualdearen kasuan, Basaburuko
Amaiur Martinez eta Orgin Ian egiten duen Amaia
Esparza egon ziren udako momentu desberdine-
tan. Bertako egoera ikusi eta bizi ostean, orain he-
mendik dabilatzala, hitzaldiak antolatu dituzte Ultza-
ma eta Basaburuan.

Lehenengoa Larraintzarren antolatu zen abuztu
bukaeran HelpNa elkarteko 4 lagunekin. “Hasiera
batean testuinguru lazgarriaren azalpena eman
genuen, baina gure helburu nagusia halako tertu-
lia bat antolatzea zen”, esan digu Amaiak, “eta ho-
rretarako pastak eta bertako tea eramanez genuen”.

Guztira bi ordu egon ziren, hurbildu zen jendea oso
interesatua baitzegoen: “Jendeak, adibidez, Saha-
rako eremuen antzekoak ziren galdetu zigun edota
egoera denboran luzatu ahal zen edo ez, ea jen-
deak haien lurraldera itzultzea nahi zuen...” .

Beste aldetik, Jauntsaratsen dagoen Esan
Erran irratian Amaiur Martinez izan genuen bisitan,
ametza.eus webgunean entzungai duzuen elka-
rrizketa interesgarrian. Denetarik kontatu zigun:
milaka pertsonari ailegatzen zitzaizkien fruta eta
elikagaiak banatzen zituztela, koordinazio lana...
baina batez ere azpimarratu zuen maila pertsona-
laren garrantzia: “Ongi etorria pertsonalki ematen
genien. Haien dendetara sartu, eskua hartu, begie-
tara begiratu eta ongi etorri esatea guztiz oinarri-
zkoa iruditzen zitzaigun”.

Orain data zehaztua ez badago ere, heldu diren
asteetan Basaburuan eskainiko da hitzaldia eta ho-
nako mezua bidali digute:

HELP-NA taldeak Jauntsarasko udaletxean
gauzatuko den saiora gonbidatzen zaituzte. Bertan
Xabier Ayerrek sorturiko “Just people” dokumenta-
la proiektatuko da gaur egun Greziako iparraldean
dauden errefuxiatuei ahotsa eman nahian. Ondor-
ren, te goxo baten laguntzaz eztabaida parte-har-
tzailea irekiko da, zeinean bizitako esperientzietan
oinarrituta gaia landuko dugun.

Anima zaitezte!

Gureak dira **oihanak** (4): EPAITZAK



Pablo Roman, Erbitiko egur saltzailea, zerramotorra eskuetan.

Epaitzak markatzen dira ia gure herri guztietan, denetan ez bada. Izan zen garai bat, herri askotan,
larre aunditz zenean, arboladiak ttikiagoak... herriak, kontzejuak, murrirak izaten zirela epaitzak
markatzerakoan. Orduan egurrak dirua balio zuen eta zurak zer esanik ez. Gero, 1970. urtetik edo,
nik uste alderantziz pasa dela, nahikoa eta aski markatu dela; hitz batez, epaitza ederrak.



Gartzarongo Joantsantzeneko Agustín Telletxea. Ia bizitza osoa mendi lanetan eman duena.

Eta orain berriz, azkeneko 15 urte honetan,
beste gauza bat ikusten ari naiz, epaitza han-
diegiak markatzen ari direla zenbait herritan.
Santiago Etxeberriarekin egin elkarriketa segituz,
honela galdetu nion epaitzez.

Zenbat tonelada markatzen duzue epaitzetarako, familia bakoitzeko?

Hamarna tonelada, ausarki. Badakik, orain jendeak
kalefakzioak eta jartzen ditik. Eta gutxiago markat-
zen denean badike berea, ez aski egurra eta orduan,
batean hemen arbola bat bota, bertze arbola bat
bertzean, oker handiagoa egiten duk.
Hori bai, orain ere badituk familiak aski ez dutenak;
eta epaitza batekin aski ez duenak, bigarrena es-
katzen dik. Bigarren hori kobratzen zioagu kanpotik
ekarrita bezala.

Eta zenbat pagatzen dik familia bakoitzak

HIZTEGIA
EPAITZA: familia bakoitzeko urtero urtero sutarako markat-
zen den arbola multzoa.
MURRITZ: hemen zuhur samar.
IXIKI: piztu.

epaitzeko?

Guk kobratzen diagu 250 euro atarian jarrita. Aurten
gastuetarako ez diagu atera, toki txarrean huen eta,
gainera, mehea. Bigarren epaitza berriz, doblea.

Aipatu dugu epaitza handiegiak ez ote diren markat-
zen zenbait herritan. Lehengo batean Imozko
emakume batek honako hau esaten zidan: *Juan-
txo, e'tzakit eurre ze itte'uten, jan eo! Saldu itten ez
ba'ute!?*

-Makumia, makumia, horrelakoik ez al dute iñen!?
Emakume honen iritziaz at, niri kontu hau aditzean,
zigarroak diru billetearekin ixikitzen zituen gizon
hura datorkit burura. Egurrak ez omen du balio eta
su eman. Batere beharrik gabe, tximinia zolan erre
eta erre, tximiniatik gora beroa botaz. Batere beha-
rrik gabe, diru billetez poltsa betea zuen gizon hark
bezala, zigarro puruak ixikitzeko diru billetari sua
ematen. Erre, erre, kupidarik gabe!

Guztiok dakigu zakua bizkarrean hartuta ibili behar
izan zuela gizon hura zahartutakoan. Ez al zaigu
hori etorriko? Zenbait herriri dudarik gabe!

OHARRA.-Kontzejuek familia bakoitzari 250-300
euro ematen ari dira urtero, epaitzetako egurretan,
konturatu gabe azken 6-7 urte honetan egurra izu-
garri garestitu dela. Eta, gainera, zergatik ari gara
arbola handiak botatzen? Zergatik ez markatu ar-
bola meheak bakandu beharreko tokietan? Ez dut
gehiago zirikatu nahi, bada garaia denok ere zerbait
pentsatzeko, oihanak gureak dira eta. Bai, bai, oiha-
nak gureak dira.

ARBOLA ETA TXIMINIA. Biak ere azken a berea dute eta
horrengatik deklinatzerakoan, arbola handiak eta ez arbol
handiak. Edo tximinia zolan eta ez tximini zolan. A-z bukat-
zen diren hitzekin kontu handiz ibili behar da deklinatze-
rakoan, joera okerra baitugu honetan, a kentzekoa, alegia.



Badator negua. Txerria hil beharko dugu laster.

Lehen ere, behin baino gehiagotan, entzuna genuen, baina Berueteko Antsoneko Martinek ederki kontaktzen du mutikotako denboretan nola galdetzen zieten zaharrek: la ze aste izaten zen hobena, ezkontutako astee eo txerrii hildako astee.

Eta bera mutilzaharra izanik, honela esan zidan: **Bik onak, seguraski, ee!**

Irakurri ere irakurri izan dut, gauza berari buruz esaldi polita hau: **Zerria hiltako astea, ezkontutako urtea, onenak.**



ZERRI HILA, JARLEKU BIGUNA.

Aurrean, ezker-eskuin: Gurutze Iriarte eta, Josu eta Joseba Ollo anaiak.

Atzean, ezker-eskuin: Izaskun Astitz, erdi ortzian, Atziber Ollo eta Goretti Iriarte.

Gizonak bere bizitzan izaten dituen bi aste hoberenak, ezkontzako astea eta txerria hiltzen den astea. Baina, ardo frexkorik gabe, biak ere motel samarrak aukeran, ez Martin! Beste era batera esanda, dirdira galduko luke-te aste horiek. Ardo frexkoa, bai, ardo frexkoa! Eta gaur ere ardo frexkoarekin gatoz eta urde kontuekin.

Ez dakit badakizuen, baina iparraldean txerriari urdea deitzen diote eta hemen ere bai garai batean, hor ditugu lekuko hainbat eta hainbat leku izen. Esate baterako, Oskotzen bada Urdansoro. Edo urdetik datozen herriak eta deiturak, Urdazubi, Urdaniz... Edo urde zatien izenak: urdaia, urdaiazpikoa, urdai zuria, urdai arraitua...

Txerriahiltzeko aste bikain hori ez dut gogoan ez baikenuen etxean zerririk hiltzen, baina urrunagotik bada ere, osabaren etxean bai urtero-urtero hiltzen zutela eta hara ginen hurbiltzen ttikitari. Eta txerri hiltze haletako batean gure izeba ezin

ahantziari, beste zenbait hitzen artean, ikasi nion **haltsarra** hitza, erdaraz pulmon esan nahi duena.

Nik lehenagotik ere ezagutzen nuen beste hitz bat, **birika**, txorizoa bezalako enbutido (1) bat, zerri azala eta zerri haltsarrarekin egiten zena. Eta aitak erakutsita ikasia nuen birika, beste adiera batean haltsarra zela. Beharbada, hortik hasi nintzen anatomiaz hitzen bat edo beste ikasten eta geroztik beste batzuk ere ikasi nituen.



TXERRIA APAINTZEN: IKASLE ASKO. Maisua ipurdiz, Jexux Ollo, Joanekoa. Ezker-eskuin: Joxe Mari Iriarte, Irurtzungo lehengusua. Domingo Rekalde, osaba, Gaskueko Domingonekoa. Iñaki Iturralde, Gilleneko. Joxe Austin Iturralde, txerri hiltzailea, Gilleneko. Jabier Iriarte, Irurtzungo lehengusua. Jorge Iriarte, Irurtzungo lehengusua. Migel Ollo, Joanekoa



TXERRI HILTzea GOLDARATZEN



OHARRAK:

(1) Enbutido euskaraz esateko, orain hestebetea erabiltzen da. Ez dago gaizki jarria.

(2) Iranoi eta hestegorri gauza bera dira. Biak entzun izan ditugu.

Hestegorria ANc G eta Ban. Iranoi berriz, ANaraq eta Baztan, BN eta S.

(3) Haltsarrak: pulmón. Azkuek ez dakar haltsarra. Iparraldean erraiak omen (Sarasolak hala dio)

(4) Anderraia. Azkuek Bizkaiko hitza dela dio. Ez da arront zuzena, hemen Nafarroan gure artean ibiltzen da eta pleura da. (Eta Jose Maria Iribarrenek dio: Añorben Andarrega esaten omen diete txekorren menudoei. Eta Subizan txerri hildakoan egiten den gosariari. (Oso-oso hedatua da hitza, beraz)

(5) Estomagoa urdaila da, baina

hemen ez dut entzun izan, nahiz hemengo hitza ere baden. Azkuek bere hiztegian badakar eta Nafarroakoa bezala gainera.

(6) Behazun: vesícula

(7) Maskuri: vejiga

(8) Bare: Bazo

OHARRA: Inork baleki pancrea nola esaten den, deitzeko eskatuko nioke: 620.625.111



Burdinezko txirrindulariak

Eskualdeko Felix Arrastoa eta Asier Juanbeltz kirolariek munduko bizikleta lasterketa gogorrean hartu zuten parte udan. Haien esperientzia hona ekartzen dizugu.



Hilabete honetako aldizkarian kirolari tarte berezi bat eskaini diogu; askotan uda kirol mota gehienak praktikatzeko sasoirik hoberena delako. Aipatu beharra dago zenbait kirol sekulako gorakada izaten ari direla, eta horietako bat mendi bizikleta da. Italiako Alpeetan urtero antolatzen da munduko probarik gogorrena: Sekulako desnibelak, teknika handiko ibilbideak, paisaia beldurgarriak, antolakuntza "artisaua"... Denetik dauka "Iron bike" deitutako lasterketa honek, munduko gogorrena da, eta bertara hurbildu ziren Felix Arrastoa eta Asier Juanbeltz basaburuarrak.



Italiako Limone Piomonte herrian hasten da askoren ustez munduko mendi bizikleta probarik gogorrena dena. Argi dago frogaezina den kontzeptua dela hau, baina, tira, txirrindulari hauek kontatu digutenaren arabera, beldurgarria da. Pentsa ezazu: 8 eguneko lasterketa, 700 kilometro Alpetan, xendetatik ibili behar eta zati askotan bizikleta bizkarrean eraman behar... Etapa bukatu eta kanpin denda jarri behar, bizikleta konpondu behar... Tira, uztaileko azken asteak pasatzeko ez dirudi planik hoberena, ezta? Gelbentzuko Felix eta Berueteko Asierrendako, behinik behin, bai: "Bion artean hitz egin genuen eta animatu ginen. Bizitzan behin izan beharreko esperientzia da hau".

Txapelketa honek exijentzia maila handia du bi eremutan: fisikoki eta psikologikoki. Egun asko jarraian dira eta luzera handiko etapak. Horrek erresistentzia maila ikaragarri bat eskatzen du. Asier ohituta dago etapa motzetan ibiltzera, horregatik nahiko larri ibili zen: "Bigarren eguna ailegatu zenean pentsatu nuen, 'non sartu naiz ni, zer da hau?'. Kontuan hartu behar da, beruetearra 100 partaideetan bigarren gazteena zela, eta normalean halako erresistentzia handiko probetan jende helduak parte hartzen du, gorputza "egina" duen jendeak. Beste eremua buruarena da. Hor bien artean asko lagundu ziren eta Asierrek asko eskertu zuen Felixen laguntza: "Esperientzia askoko gizona da eta bazekien zein zen bere erritmoa eta hori aurkitzen lagundu zidan niri ere".



4.000 metroko desnibelak, 100 kilometro baino gehiago egin behar egunero, bizikleta bizkarrean ibili behar, menditik jaisteko oso leku txarrak... Horrek guztiak ez zituen gure lagunak kikildu eta lortu zuten amaieraraino ailegatzea. Juanbeltzen kasuan, aipatu beharra dago etapa bat irabazi zuela. Argi dago horrela ibiltzea ez dela guztiondako aproposa, baina tira, aldizkaria eskutan duzula errazago ikusten da dena, ezta?

GOIZARGI SANTXO, JAUNTSARASEN IRAKASLE ETA ERITZEKO BIZTANLEA:

"Herri txikietan bizitzeak baditu bere abantailak eta desabantailak, baina nire balantza partikularrean abantailek irabazten dute."

Askotan esaten da saltsa gustatzen zaionari saltsa guztietan sartuta amaitzen duela. Gure Herri honetan halako hamarnaka zorioneko adibide dugu: Jende gazte zein zahar, han-hemen dabilena besteen alde eta baita gustuko duenaren alde lanean. Eskualde honetako saltseroenetakoa dugu, betidanik, Goizargi. Dantza taldean, eskolan, Ametzan... Eritzeko haien etxean jaso gaitu.



Betidanik bizi izan zara hemen?

Zazpi urte nituenean etorri ginen herrira. Unibertsitate garaia Donostia eta Iruñean eman nituen, baina orain Eritzen bizi naiz. Beraz, urteak daramatzat Atetzen, bai.

Eskualdean bizitza nola ulertzen duzu?

Eskualde honetan bizi izan gara txikitatik. Oso gaztetatik hasi ginen Atezko Olentzeron, iotean, Atezkon parte hartzen, aitareen arrimuan. Geroxe-ago Kili zenarekin kanpaldietara eta joaten ginen, begirale gisa eta baita Martin Mariezkurrena Euskara Teknikari zegoenean ludoteketan. Geroago Soinuzale akordeoi taldea sortu eta herriz herri ibiltzen ginen. Etxean hau jaso dugu eta oso gustuko dut bai Atezko nola zonaldeko bizitza kulturean parte-hartzea eta inplikatzeko. Herri txikietan bizitzeak baditu bere abantailak eta desabantailak, baina nire balantza partikularrean abantailek irabazten dute.

Noiz hasi zinen Jauntsaratsen lanean?

Orain zortzi-bederatzi bat urte. Barañoingo esko-

lan lan finkoa nuen, baina herrian lan egin nahi nuen, eta zortea izan nuen.

Hezkuntza proiektu interesgarria dago bertan, ezta?

Urteak daramatzagu esperientzia ezberdinak ikusi, ulertu eta uztartzeko saiakeran, beste eskola askotan bezala. Irakasle eta familien artean motibazioa zein inplikazioa izugarria egon da beti, ez da lan makala! Izugarri dago egiteke, hezkuntza eredua errotik aldatu beharra baitago, oso eredu zaharkituetatik abiatzen baikara.

Ama izan berri zara, talde bat sortu duzue.

Uda aurretik elkartzen hasi ginen, ama gisa zenbait behar asetzeko asmoz; herri txiki eta bakanduak, sare familiarren falta, egoera berdinean dauden emakumeekin elkartzeko beharra...

Espero dut ikasturte honetan berriz ere biltzen hastea, ideiak eta proposamenak ez zaizkigu falta. Deialdi berriak eginen ditugu, beraz, interesa baduzue, adi egon, ongi etorriak izanen zarete guztiak.

ZORIONAK ZUEI!



HEGOI



Olatz



Pau



OSKIA



TASIO

AMAIA

NAGORE

UNAI

Lehortearen **ondorio** ezkututak

Beroa eta lehorra izan da uda. Zaila da gogoratzea noiz egin zuen honen uda lehorra, eta bereziki abuztua. Ultzamako Garrapo taldeak egindako neurketen arabera 0,5 litro baino ez dugu izan m2-ko abuztu osoan. Normalean 40 litro inguru izaten dira, beraz pentsa zenbateraino izan den lehorra abuztua.



Ageriko ondorioak izan ditu honek: Udazke-na ohi baino lehenago etorri zaie zuhaitzei, larreak kolore horixka hartu zuten, Imotzen urik gabe geratzen hasiak ziren iturburu zenbaite-tan, eta nola ez, gurean oso arraroa den sute bat izan genuen, Ilarregin izandakoa.

Dena den, badira horren agerikoak ez diren ondorioak ere, landare-diari, animaliei eta gizakioi eragiten digutenak.

Euri gutxi egin izanak zuhaitzak elikagairik gabe utzi ditu. Urik ez dute izan zuhaitzek eta asko, Orgi basoko haritzek kasu, erreta zeudela ematen zuen. Hostoak erreta zituzten, asko ere udan hos-toak galtzen hasi ziren; eta, beraz, udazkenean ohi baino lehenago sartu ginen. Imozko Latasa aldean, esaterako, astigar asko erabat erreta daudela aipa-tu digu Edurne Gerendiain Garrapo taldeko kideak.

Baina ondorio larriagoak ere baditu. Fruituak egoki hazteko ura behar da, eta asko ez dira oso ongi hazi. Horrek esan nahi du, animalia basatiek

ez dutela elikagai askorik izanen udazken hone-tarako. Kasu argia ezkurrena da. Ongi hazi baino lehen erori dira ezkurak, eta animalia ezkur-jaleek oso ezkur gutxi izanen dute.

Bestalde, ganaduari elikagaiak aldatu behar izan dizkiete abeltzain batzuek, eta udako bazka eman beharrean, negukoa ematen hasi behar izan dute.

EHNE sindikatuak sakoneko hausnarketara dei-tu du ageriko zein ez ageriko ondorio hauen harira, bereziki Nafarroan izan diren suteak ikusita. Landa garapen ereduaz, produkzio ereduaz eta kontsu-moaz hausnarketa bat egin beharra dagoela dio sindikatuak.

Nekazari eta abeltzainak izatea, landa mundua bizirik egotea, mendia garbi egoteko erarik onena dela diote. Jokoan dagoena ez dela soilik osasune-rako horren garrantzitsua den elikadura, ezta su-teak ere, jokoan dagoena garapen eredu dela dio sindikatuak.



2016eko abuztua edo agorrila

Gure alderdian izan ziren jaiotzak eta heriotzak

JAIOTZAK:

ANUE
EGOZKUE
Ainitze Alduntzin Oiartzun, Jon eta Arantza-zuren alaba, 2016ko agorrilaren 16an jaioa, *Xiltonean*.

IMOTZ
ETXALEKU
Alaia Iriarte Beloki, Mikel eta Goiuriren alaba, 2016ko agorrilaren 12an jaioa, *Hurreondan*.

ODIETA
ANOTZIBAR
Erik Aitor Amundarain Jimenez, Aitorren eta Naiararen alaba, 2016ko agorrilaren 10ean jaioa *Amundarenean*.

ULTZAMA
ALKOTZ
Aimar Bertiz Latasa, Gorka eta Nerearen semea, 2016ko agorrilaren 2an jaioa. *Aizeleku* etxean.
SUARBE
Nere Zubieta Ariztegi, Marta eta Ricardoren alaba, 2016ko agorrilaren 16an jaioa, *Aldapako* etxean.

ONGI ETORRI JAIO BERRIEI ETA ZORIONAK



Ainitze eta familia



Mikel, Alaia eta Goiuri



Erik ttikia, familia osoarekin



Nerea Aimartxorekin



Nere, Eki eta gurasoak

HERIOTZAK

IMOTZ
MUSKITZ
Nicasio Zubiria Armendaritz, 2016ko agorrilaren 19an hil zen. Juankoneko nagusia.

GURE OROIMENEAN IZANEN ZARA.



Nicasio Zubiria

Entzun Esan Erran irrati
munduko edozein lekutan
www.ametza.eus
helbidean



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

☎ 629 31 53 32 - 722 766 835

🏠 Lizaso

✉ karikolaregoitz@gmail.com

DABID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL.: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ



